ARTZAPE

Getariarron Topagunea

JOKOTIK DANTZA JANGARRIRA: "HARRI, ORRI, AR"
KORRIKA HOGEIGARRENEZ EUSKARAREN BIDEAN

Astillero
ANTONIA IRIBAR
Erretegia
Parrillan espezialitatea
Kaia, 1
20808 GETARIA
Tel.: 943 14 04 12

Garbiñe Ibarbia Gamboa
Colegiado Nº 5158/158
- Proiektuak eta erreformak
- Obra-zuzendaria
- Obra-eta jarduera-baimenak
- Gremio koordinaketa

barne diseinua interiorismo
Kristobal Balentziaga, 7 - Getaria - Tel. 685 75 18 21 garbi.ibarbia@hotmail.es

Katrapona 4
Tel. 943 140 409
info@katrapona.com
www.katrapona.com
KATRAPONA

HARRALDE
GETARIA NAGUSIA 17
☎ 14 07 04

portu
nagusia 12
20808 getaria
943 140285

MAISOR
Kantauriko esperientzia
OBRADOREA eta DENDA
Tel. +34 943 140 993
www.maisor.com
GETARIA
ANTXOA | ANTXOA OZPINETAN | HEGALUZEA | BERDELA | MENTREZKA | SARDINTXOAK

PINTXO GOXOAK
ITSASKIAK DASTATZEKO EDO ERAMATEKO
GETAKA
GETARIAKO PRODUITS EXPRESSION
KALE NAGUSIA 35. GETARIA - TEL.: 943 02 16 13
WWW.GETARIAEXPERIENCE.COM
WWW.GETAKA.ES

KAIA-KAIAPE JATETXEA
General Arnao, 4 - 20808 GETARIA (Gipuzkoa)
Tfno. 943 14 05 00 • Fax 943 14 01 21 • www.kaia-kaipe.com

Eugenio Uranga
Aseguru Artekaria
Herrerieta, 12
20808 GETARIA
Tel.: 943 140 120
Mobila: 652 775 061
E-posta: euranga@getaia.com

SALANORT
MAESTROS CONSERVEROS
KALE NAGUSIA 22
GETARIA
943 14 06 24
tienda.getaria@salanort.com
Síguenos en FACEBOOK
www.salanort.com

8-9 Harritarten txutxupeka

22-25 Elkarrizketa: *Harri, Orri, Ar*

4	Elan Euskadi
5	Txapakalezka
6	Bi hitzetan
7	Historiaren katebegiak
8-9	Harritarten txutxupeka
9	Getariako hitza
10	Komikia
11	Diseinuaz
12	Iritzia: Saioa Martinez de Lahidalga
13	Toponimia
14-15	Salberak Itsaskabrari
16	Klik batean
17	Petriletik ikusmiran
18-20	Erreportajea: Korrika
22-25	Elkarrizketa: *Harri, Orri, Ar*
26	Agenda

2017ko martxoa 169. zbk

ARTZAPE

Getariarron Topagunea

[Argitaratzailea] Artzape Euskara Elkartea
[Egoitza] Krixketaneko Iturrigaina 1 - Eskualtxeta Kulturgunea
[Kontaktua] 943 000 548 / artzape@topagunea.com
[Erredakzioa] Jon Ander de la Hoz eta Iure Eizagirre.
[Lan taldea] Aritz Iribar, Eider Iribar, Izaro Uzin, Josune Urresti, Nerea Kamio eta Unai Lorenzo.
[Kolaboratzaileak] Aitor Irigoien, Amaia Irazabal, Andres Alberdi, Anuska Esnaola, Beñat Gereka, Cesar Blanco, Edurne Irigoien, Elan Euskadi GKE, Ereiten Kultur Zerbitzuak, Getariako Eskubide Sozialen Karta, Iturzaeta Herri Eskola, Iñaki Requejo, Joxi Erauskin, Kepa Iribar, Markos Aizpuru, Mikel Mugika, Saioa Martinez de Lahidalga, Urritza Aisialdi Taldea, Uxue Alberdi, Uxoa Irigoien, Xabi Insausti eta Zigor Saizar.
[Diseinua] Aritz Paredes
[Inprimategia] Gertu (Oñati)
[Tirada] 365 ale
[Lege gordailua] SS-504/01
[ISSN] 1578-469X

ARTZAPE ALDIZKARIAk ez ditu bere gain hartzen aldizkarian argitaratzen diren iritziak.

GETARIAKO UDALAK, FORU ALDUNDIAk eta EUSKO JAURLARITZAk diruz lagundutako aldizkaria.

Getariako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

elan euskadi
ONGD - GGKE

100 urte eta zer?

Emakumearen Nazioarteko eguna martxoaren 8an ospatzen da herrialde gehienetan, 1975ean Nazio Batuen Erakundeak izendatu zuenetik.

1908. urtean 15.000 emakume inguruk, New Yorken, beraien lan baldintzak hobetzea aldarrikatu zuten. Lanaldiaren murrizketa, soldata hobeak eta bozkatzeko eskubidea eskatzen zituzten, besteak beste. Handik pare bat urtetara martxoaren 8a emakumeen eskubideen aldeko eguna izatea proposatu zen.

100 urte pasa direnean, 2010ean, Nazio Batuen Erakundeak (NBE) berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko Emakumeen NBE sortu du. Neskato zein emakumeon ahotsa izan eta beraien eskubideen alde egiteko jaio da.

Erakunde honen helburu nagusiak hiru dira:

- Neska eta emakumeon aurkako bereizketak ekiditea.
- Emakumeon ahalduntzea.
- Gizon eta emakumeon arteko berdintasuna giza eskubide, garapen, bake eta segurtasunaren aldeko bidean.

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna giza eskubide bat da eta horren alde egiteak lorpen orokorrak ekar ditzake: herrietako produktibitatea hobetu eta ekonomien hazkundea, adibidez.

2017an, mende bat igaro ondoren, herrialde batek ere ez du lortu guztizko genero berdintasuna. Estatu garatuenetan gizon eta emakumeon arteko soldatak oso desberdinak dira lan berdina eginda ere eta emakume asko dira —bat ere gehiegi litzateke— dira indarkeria matxista jasaten dutenak. Baina beti bezala, herrialde txiroenak dira egoera gogorrenak bizi dituztenak, baita emakumeen ikuspuntutik ere: ablazioa, indarkeria, bazterkeria, heriotza zigorra...

Zeinaben kasua emakumeon jazarpenaren eredu nabarmena da. Zeinab Irango 22 urteko neska bat da; 15 urterekin ezkontzera behartua izan zen. Hasieratik bere senarrak tratu txar fisiko eta psikologikoak eman zizkion. Egoera jasanezin hori salatzera ausartu zen, baina poliziak ez zuen ikerketarik ere zabaldu. Horrez gain, senarrarengandik banatzeko ahalegina egin zuen baina ezin izan zuen aurrera jarraitu. Bere familiak ere ez zuen babestu, behin etxetik aterata senarra zelako bere "zaintzailea" edo "arduraduna".

Zeinabek 17 urte zituela, senarra hil zuela eta atxilotu egin zuten. Komisaldegian eduki zuten 20 egun baino gehiago; poliziek torturatu egin zuten. Kolpeekin lehenbailehen bukatzearren, senarra hil zuela aitortu zuen.

Epaiketa hasi zenera arte ez zuen abokatu baten laguntza jasotzeko eskubiderik izan. Epaiketan aurrez aitortua ukatu zuen. Bertan azaldu zuen koinatua izan zela senarraren hiltzailea, eta gizon honek lehenago Zeinab bortxatu zuela behin baino gehiagotan. Epaileak ez zion sinesgarritasunik eman eta heriotza zigorra ezarri zion. Orain, Gobernuz Kanpoko Erakunde batek denon artean Zeinabi laguntzeko eskaera luzatu du. Horretarako hurrengo helbidean sinatu behar da: https://www.es.amnesty.org/actua/acciones/iran-ejecucion-zeinab-oct16/.

Pausoz pauso egoera hobetu dezakegu eta horretan sinetsi behar dugu. Hasi gaitezen Zeinabekin!

AITOR IRIGOIEN
BEÑAT GEREKA
MIKEL MUGIKA

Gu zuen edadian...

Larunbat eguerdia zen eta Itxaspeko gure ofizinara gindoazen, Txapakalezkarako ideia berriren bat edo ea okurritzen zitzaigun. Frontoi parera iristean, ordea, marea naranja batekin topatu ginen. Haur ugari zebiltzan jolasean, guztiak kamixeta naranjekin. "Zer duk hau? A. Riveraren Ciudadanos umien udalekuak antolatzen hasi ote dek gure herrian? Euskaltelek talde ziklistan ordez frontoitako umeen jokuak babesten al dizkik oain?" Ez genuen ezer ulertzen...

Umeengana pixkat gerturatu ginenean, alabaina, a ze ezustekoa! Ez sinesteko modukoa: Iturzaetako Eskola Kiroleko haurrak ziren eta! Zer pasa zen gure garaiko kamixeta txuri mitiko haiekin? *Cajarros*en sponsor ta guzti zuten ta!!! Ariel bezain txuri, Real Madrideko kolore... Nola ausartu ziren kamixeta kolorez aldatzera, referendumik egin gabe? Zer ari zen gertatzen?

Kolpe gogorra izan zen. Baina ez azkena. Halako batean ondorengoa esan baitzion umeetako batek gainontzekoei: "Hi! Goazen txapakalea jokatzea!" Txapakale??? Txapakalezkara esan nahiko zuten, ez? Kapitalekuak bezala hasi al gara izenak mozten? "Buenpas", "Bule", "Konsti", "Intxau", "XabiPri"...

Haserretu egin ginen, ta jubilatuak baikinan, herriko ume eta gaztetxoak kritikatzen jarri: gero ta zauztar itxura gehiago zuten (janzkera, portaera...). Petatxuak jada museoko pieza bilakatu ziren. Gure garaian, berriz, galtzak petatxoz josita izaten genituen ta batzutan baten gainetik beste bat jartzen zitzaien, plantxarekin ondo zapalduta. Gu gustura, batez ere marrazki bizidunetako batenak zirenean! A ze garaiak!

Lehen, Errealeko kamixeta 13-14 urterekin izaten genuen lehen aldiz —izatekotan—. Orain, Txanpions Ligeko kamixeta denak ikus daitezke adin oso txikietatik. Lehen, ez ginen frontoitik atera ere egiten, modaren arabera ekintza diferenteak eginaz (raketa, santxeski, xiba, kalezka...); frontoian idatzi gabeko lege bakarra zegoen: zaharrai errespetua —ta bestela, *balonazo* batekin bero-bero etxera erdinegarrez—. Hori dena iraganeko kontua da...

Gure ume denboran ez geneukan mugikorrik, eta elkarrekin aurreko egunean despeditzerakoan hitz eginda edo etxeko telefonoetara deituta juntatzen ginan. Orain, herrian ez dago telefono kabinarik, mundu guztiak txiki-txikitatik mugikorra duelako.

Kanpamentuak egiten igarotzen genituen egun ugari, liburutegitik hartutako Tintinen ta Asterixen liburuak irakurtzen, San Juanetako kartoi ta egur bila gora ta behera, Bronxekoak ziruditen teniseko edota saskibaloiko kantxa haietan...

Garaiak aldatuz doaz, hori ebidentea da. Baina guk gurean jarraitzen degu. Beraz, etxera jun, oroitzapenen kutxa zaharretik plaierotako kamixeta txuriak atera eta Txapakalezkara jolasten jarri ginen, ze demontre! Edadian kontuak izango dira agian...

Oharra: hilabete honetako Txapakalezka egiteko kolaboratzaile talde zabala izan degu ondoan. Hauek: Manchester Cityko laterala, Upperhouse kapitaina, John Umtiti zentrala, EMerY misterra... Eskerrik asko guztioi! Futbitoko taldea ateratzeko moduan gaude martxa hortan. Gu marroiz, hori bai, bide batez St. Pauliri omenaldia eginez.

udalsarea21

Zabor bilketa

Beste urteetan bezala, jarraian azaltzen ditugu Getariako udalerrian 2015 eta 2016 urteetan zaborraren bilketan izandako kopuruak.

	2015. ekitaldia	2016. ekitaldia
Arropa	14.835 kilo	15.300 kilo
Beira	201.860 kilo	203.610 kilo
Olio begetala	3.155 litro	2.345 litro
Ontzi arinak	82.547 kilo	85.878 kilo
Papera	197.260 kilo	197.581 kilo
Pilak	240 kilo	351 kilo
Materia organiakoa	95.378 kilo	108.972 kilo
Errefusa	1.121.000 kilo	1.107.280 kilo

Birziklatze-tasak adierazten du jaso diren hiri hondakinetatik zein ehuneko bideratu den birziklatzera.

Kaleko edukiontzien bidez jasotako hondakinen birziklatze-tasa aztertuta, garbi ikusten da urtero igotzen ari dela Getarian; baina beti Urola Kostako mailatik beherago gaude, nahiz eta bere neurrira iristen ari garen.

	Getaria	Urola Kosta
2010	21,23	27,12
2011	23,77	28,84
2012	27,76	35,66
2013	30,80	39,27
2014	33,69	40,28
2015	34,68	39,49
2016	35,66	39,88

Lerro hauen bidez animatu nahi zaituztegu zaborra sortzerakoan pixka bat begiratzera, eta ondoren birziklatzen jarraitzera.

Informazio gehiago:
Tel. 943 896024
www.urolakosta.eus
maizpuru@getaria.org

Udaletxeko artxiboetatik
EREITEN Kultur Zerbitzuak

GUZTIZ SUNTSITUTA

Tarte honetan Getariako artxiboaren galerari buruz aritu ginen orain pare bat urte. Hau Lehen Karlistaldiaren ondorioetako bat izan zen, baina ez bakarra. XIX. mende hasierako gatazka horrek herria guztiz suntsitu zuela esan dezakegu.

Getaria gotorleku garrantzitsua izan da historian zehar. Bere orografiaren berezitasunek eta kostan duen kokaguneak gune estrategiko bihurtzen dute. Hori dela-eta gune militar izan da historian behin baino gehiagotan. XIX. mendearen hasieran bi aldiz militarizatutako plaza izan zen: lehena, Napoleondar Gerretan eta bigarrena, Lehen Karlistaldian. Bi kasuetan portuak berebiziko garrantzia izan zuen.

Napoleondar Gerretan frantsesek okupatu zuten Getaria 1808ko martxoaren 5etik 1813ko uztailaren 1era. Egun horretan bertan portuko minek eztanda egin zuten, Getariako defentsetan kalte handiak eraginez. Gainera, 1814an tropa ingelesek San Anton mendiko gotorlekua suntsitu zuten.

Getariako defentsak egoera horretan geratu arren, 1834ko azaroaren 1ean, Lehen Karlistaldiaren testuinguruan, Getariako soldadu taldea berrezarria izan zen. Kasu honetan, Getaria liberalen gune izan zen eta gatazkaren lehen lerroan egon zen.

Egoeraz ideia bat izan dezazuen, 1835eko abenduaren 15ean Herrerieta errebalari su ematea agindu zuen Getariako Alkateak, karlistak bertan indartu ez zitezen. 1836ko urtarrilean, ordea, karlistak Getarian sartu ziren herria guztiz suntsituz. Soldadu talde liberalak 1838 arte irautea lortu zuen, tropa isabeldarrek Garate mendia hartu eta Getariak jasaten zuen blokeoarekin bukatu zuten arte. Guzti honen ondoren herria nola geratu zen imagina dezakegu...

1838ko irailaren 11n udalbatzak batzorde bat sortu zuen Lehen Karlistaldiak herrian utzitako kalteak zenbatzeko. Hilabete berdineko 20. eguneko udalbatzarrean herriaren egoeraren berri eman zuen batzordeak. Karlisten erasoak udal artxiboa, eskribautza, harresiaren barruko 104 etxe eta landa eremuko 51 baserri suntsitu zituen. Hiribilduan 15 eraikin bakarrik salbatu ziren eta horiek ez zuten bertan bizi ahal izateko adina erosotasun eskaintzen.

Egoera latz honen aurrean, udalbatzak Gipuzkoako Foru Aldundira laguntza eske jotzea adostu zuen. Getariarrak herrira bueltatu zitezen eta herria berreraikitzeko aukera izan zezaten, Getaria zerga eta arieletatik kanpo uztea eskatu zioten.

Hilabete beranduago udalbatzak erantzuna jaso zuen. Bertan, zergak eta arielak kentzeaz gain, egoera latzari benetan aurre egin ahal izateko eta hiribildua guztiz berregin ahal izateko, urteko 2.000 erreal emango zitzaizkiola jakinarazten zen. Horri eta herritar guztien lanari esker, Getaria errautsetatik birsortzen hasi zen. Tamalez, ordea, Bigarren Karlistaldia iritsi zen XIX. mendearen bigarren erdian.

Eskola herrian, herria eskolan

Iturzaeta Herri Eskola sortu zenetik, helburua izan da aberatsa izatea eskola eta herriaren arteko harremana. Hala bete da urte luzeetan eta aurtengo honetan ere asmo berdinekin jarraitzen dugula agertzeko hona hemen azken egunotako adibide batzuk:

Inauteriak

Bosgarren mailakoak goizean zaharren egoitzara joan ginen inauteriei buruz guk prestatutako bertso batzuk kantatzera gure aiton-amonei. Asko gustatu zitzaizkien eta amona batek gaztetan ikasitako bertso bat bota zigun, oso ondo kantatuz. Guk ondo pasa genuen beraiekin eta gure herriko edadetuekin egotea aberatsa dela ikusi genuen.

Arratsaldean eskolako ume eta irakasle guztiak mozorrotu ginen. Txirrina jo eta gero handiok kiroldegira joan eta aurretik gela bakoitzak aukeratutako abestia kantatu eta dantzatu genuen. Gero jolasean hasi ginen, jolas bakoitzak 10 minutu irauten zuen eta bukatzen zenean, bakoitzari Sugusa ematen ziguten. Ondoren, jolas denak amaitzean, txokolatada egin genuen. Txokolate beroa eta bizkotxo txikiak jan genituen bertan zeuden herritarrei banatuz.

Asteburuan, herriko plazan, *Eskuetan* kanta jarri zuten gauean *playmob* antzeko zerbait egiteko. Jendea animatu eta askok egin zuten dantza. Oso polita izan zen eta asko gustatu zitzaigun. Batzuek ez zuten nahi dantza egin, baina gehienek bai eta hor plazan oso ondo pasatu genuen.

Parte-hartzea herriko gaietan

Potzuaga kaleko parkea berritu nahian genbiltzan Getariako herritarrak. Udalak guztiok parte hartzeko, eta parkearen erabiltzaileak gu garela ikusita gure iritzia jakiteko, bi proposamenen artean guk bozkatzea erabaki zuen.

Lehenengo urratsa izan zen eskolan bozkatzeko jarri zituzten argazkiak, bi parkeen proposamenekin. Guretzat proposamen bat txikitxoentzat egina zen; bestea handientzat, eta dibertigarriagoa zen gure iritziz.

Egun batzuk eta gero izan zen bigarren urratsa: bozketa egiteko kristalezko kutxa batean zein parke nahi genuen galdetu ziguten. Kutxaren ondoan paper batzuk zeuden parkeen marrazkiekin eta markatu egin behar zen zein parke nahi genuen; hori egin eta gero papera sartu kutxan. Eskolako guztiok botatu genuen bertan, beste gazteek berriz, herrian.

Emaitza ikusteko, hirugarren urratsa: udaletxera iritsi eta gero ordezkariak botoak kontatzen hasi ziren. Besteok apustuak egiten genituen eta bitartean zein parke aterako zen pentsatzen ari ginen. Lehen parkeak 171 boto zituen eta bigarrenak 19. Parkeak oso politak dira eta ilusioa egiten zigun. Parkea aukeratu eta gero, eraikitzeko asmoa dago. Azkenik, Potzuagako parkea berrituta, azken urratsa: ume guztiak jolastera joango gara.

Emakumearen eguna

Martxoaren 8a zela eta eskolan bideo batzuk ikusi genituen emakumeen egoerari buruz; horretaz hizketan aritu ginen. Bi kartoi mehe eta more, ekarri zituzten bakoitzarentzat; bat etxerako, bestea Berdura plazan

jartzeko. 1. eta 2. mailako ikasleek tailerretan lelo bat egin zuten.

Egunean, 11:45ean plazara jaitsi ginen. 3. mailako ikasleek leloa eraman zuten plazaraino, eta besteok marrazkia eraman genuen eskuan. Jolas garaian kartoi mehe morez egindako laxoak jartzen egon ginen, eskolatik udaletxera bidean. Oso polita geratu zen. Iritsi ginenean 6. mailako bi ikaslek testu bat irakurri zuten emakumeei buruz.

Gero bi bertso abestu genituen denon artean, baita han zeuden guraso eta aiton-amonek ere. Horrekin nahi genuen adierazi emakumeak eta gizonak berdinak garela. Lanean mutilei gehiago pagatzen dietelako eta mutilek egiten dutena neskok ere ahal dugulako egin, berdin kobratuz. Poliki-poliki lortzen ari gara. Azkenik, udaletxeko zinegotzi batek irakurri zuen beste testua. Denok egon ginen plazan emakumeen alde gaudela aldarrikatuz. Gainera eguraldiak ere asko lagundu zigun, oso eguzkitsu zegoen eta.

Bukaeran, bakoitzak bere marrazkia hartu eta Berdura plazan zegoen sokan jarri genituen pintza batekin. Marrazki denak oso politak ziren. Hiru neskek, "Berdintasuna 365 egunetan" leloa jarri zuten kultur etxeko balkoian; pixka bat kostata baina oso ondo gelditu zen. Pankarta antzeko hori jarrita dena bukatu zen. Gero marrazkiak ikusten egon ginen eta bakoitza bere etxera joan zen bazkaltzera.

Guk gure amonari zorionak eman genizkion. Arratsaldean ama lanetik etorri ondoren berari ere zorionak eman genizkion. Oso pozik geratu ziren. Denok daukagu eskubidea nahi duguna egiteko. Egun horretan oso ondo pasa genuen Iturzaetako ikasleok eta herriko jendeak ere bai.

GORA EMAKUMEAK, GORA DENOK.

Bosgarren mailakoak.

Bidaltzailea
Artzapeko lantaldea

POITOA

Getarian bakarrik erabiltzen den hitza da nonbait ***poito***. Arrantzaleek, partilaz gainera, aparteko diru edo prima modura beren patrikarako jasotzen zuten diru-zatiari esaten zaio horrela. Oso estimatua (izan) da arrantzaleen artean, patrikarako dirua baita; etxean entregatzeko obligaziorik gabekoa. Galduz doan ohitura da kobratze-modu hori, horkoa "diru beltza" baita.
Herri bakoitzean deitura berezia eman izan zaio albo-irabazi horri. Ondarroan, esate baterako, bi modutara: "amai ez emona" edo "ardau-dirua" esan izan zaio. Hondarribian, "txakurr(ar)ena". Kantabria eta Asturias aldean ere izen bat baino gehiago du: "matute", "cena", "amusqui"...
Poito hitzaren nondik norakoaren aztarnarik ezin izan dugu inon atera; ez da ageri inongo hiztegitan.
Getarian badira Poitonekoak, baina izen horrek ez du inolako erlaziorik gaur hizpide dugun hitzarekin.

Getarian eta inguruetan esaten diren hitzen txokoa da hau. Animatu eta bidali *artzape@topagunea.com*era ezagutzen dituzun hitzak.

Egilea
EDURNE IRIGOIEN

PLIST & PLAST

Idazlea
GARBIÑE IBARBIA

DENA DISEINUA DA, DENA!

Seguru noiz edo noiz irakurri edo entzun duzuela Paul Randen esaldia: "dena diseinua da, dena!". A zer egia. Gaurko gizartean, dena diseinua da. Gure eguneroko bizitzan, denbora guztian horrekin harremanetan gaude. Gure inguruan begiratzen badugu, ikusten duguna ikusita, denak diseinu prozesu bat izan du; eraikinak, autobusetako markesinak, gosaltzen dugun zukuaren *tetrabrick*a, altzariak, webgune bat, arropak edo oraintxe bertan eskuetan daukazun aldizkaria ere diseinatuak izan dira. Dena diseinatua izan da kontuan hartuta kolore konbinazioak, formak, irudiak, tipografiak... eta dena pertsona buruetatik atera da.

Hau ez da oraingoa, diseinua beti egon izan da; gizakia gizarte bezala antolatu baino lehenagotik. Hasierako gizonak/gizakiak duela hamar mila urte landutako lantza punta sinplea ere bere buruan diseinatu behar izan zuen lehenago. Diseinua gizakiaren naturaren parte da, hasiera batean bere buruan dagoena errealitate bihurtzeko ahalmena da. Bat dator ideiak, edozein izanda ere bere jatorri eta edukia, transmititzeko nahiarekin. Gainera, gizarteak bere ingurunean dituen beharrei erantzuten die, kontuan hartuta bere estetika eta funtzionaltasuna.

Gizartearen gain eragin handia du, gustuak, joerak edo ohitura sozialak sustatuz. Beraz, eman diezaiogun merezi duen lekua eta garrantzia. Hausnar dezagun: ondo diseinatutako gauzek ez gaituzte asebetetzen? Gure etxean ez gara gustoko gauzez inguratzen? Eta gauza bat erostera joaten garenean, zer baloratzen dugu? Itxura? Erosotasuna? Erabilgarritasuna? Hori diseinua da.

ARTZAPE
GETARIARRON TOPAGUNEA

SAIOA MARTINEZ
DE LAHIDALGA

Antidotoa

Maria Luisa Galardiren heriotzarekin EITBk aro berri bezain kaxkar bati hasiera eman zion. Euskal aktoreen eskola eta tranpolina izandakoari hegoak moztu eta txori bat hegan egin ezinik geratzen den bezalaxe geratu zen, han hemenka, noraezean. Ez da kasualitatea abenduaren 28an emititu izana estatuko saiorik luzeenaren azken atala, inuzentea behar baita izan euskal kulturaren ardatz izan den zerbaiti horrelako amaiera emateko.

Ordutik, boxeoko ring batean lez, kolpe bat bestearen atzetik etorri da. Aipagarriena, *Eskamak kentzen* saioarena, iraungitze epe oso laburreko produktu izan dena. Funtsik gabeko programez eta ia duela hamarkada bat grabatutako pilota partiduz bete dute programazioa. Titinek erretiroarena atzeratu eta berriz ere pilotan hasi dela uste du gure aitonak. Olaizola bigarrenak ere, ostiral batetik bestera, ile kopuruan gorabehera handiak izaten dituela aipatu zidan aurrekoan, kezkatuta. Nola azaldu aste batzuetako pilota partidak, izatez, duela 5-6 urte jokatutakoak direla, eta beste batzuk, ostera, egun berekoak?

Bestalde, nor-nori-nork, Gozategiren kanta izateaz gain, euskarazko esaldien gramatikaren ardatz dela gogoratzea beharrezkoa da; baita "A"-z hasitako Euskal Herriko hiri zein herriz osatutako zerrendan Andorrak ez duela lekurik. Bikote eredu bakar eta absoluturik ez dela existitzen, eta kontrako sexuko pertsonekin whatssapez hitz egitea, oraindik behintzat, ez dela delitu azpimarratu nahiko nuke. Hau horrela, astegunetan, gaueko hamarrak baino lehen telebista pizteak eragin ditzakeen kalte psikologiko eta arriskuez informatuta geratzen zarete.

Azken hilabeteetan, aitzitik, aldaketa bat edo beste izan da, eta ongi egindako gauzak goraipatzea ere bidezkoa dela deritzot. Asteartetan, adibidez, hainbat gairen inguruan gogoeta egiteko parada izaten dugu *Ur handitan* saioan; ezezagun diren edo beldurra ematen diguten gaiei buruzko iritzi zein datu ezberdinak jasotzea beti izaten da aberasgarria. Ostegunetan, *Gailurra Xtreme* saioarekin, kirolean sakrifizioak, burugogorkeriak eta erokeriak zer nolako pisua duten ikusten dugu, eta ostiraletan, berriz, *Go!azen* saioarekin, etxeko txikiek —zein ez hain txikiek— euskaraz abestu eta barnetegiko gaztetxoen istorioekin entretenitzeko aukera bikaina izaten dute.

Asteazkenetan geure buruaz eta estereotipo zein jarri dizkiguten etiketez barre egiteko aukera paregabea eskaintzen zuen *Euskalduna naiz, eta zu?* programa bereziak. Egun, telebistan dauden ohiko programetatik ezberdintzen zen eta hainbat gairen inguruko euskal pertsonaia ospetsuen ikuspuntu, istorio eta anekdotak biltzen zituen. *Espainia* atala emititu zen arte. Espainiaren inguruan esandako piropo eta lore guztiak moztu, eta testuingurutik erabat ateratako titularrek bete dituzte zenbait egunkari. Baina, ai ene! zer nolako grazia egiten diguten *Ocho apellidos vascos* eta *Alli abajo*k, estereotipoen gaindosirik edukiko ez balute bezala. Euskal Herrian ileapaintzaileek aizkorarekin mozten omen dute *flekilloa* eta haurrek kaleetan espaloia mugatzeko egoten diren harriak esku bakarrarekin altxatzen omen dituzte. Irainduak sentitu omen dira espainiarrak programa horretan esandako hitzekin, ez ordea, eguerditan Telebosten botatzen duten zabor eta gehiegikeriaz itotako programarekin.

Hipokresiaren antidotoaren esperoan jarraitzen dut oraindik, laborategiren batek, berandu baino lehen, lortuko duelakoan. Bitartean, jarri kafe bat, *hutsa eta doblia*.

Idazlea
ANDRES ALBERDI

FRAILEBURU (PRAILEBURU)

Adinean aurrera goazenon begietan dago oraindik argazkian ageri den Fraileburuko sabai erdizirkulardun etxola hura, gaur egun jada desagertua, joan zen mendeko 60. hamarkada bukaeran eraitsi baitzuten gaur egun bertan dagoen zementuzko Club Nautico berria egiteko. Irudi paregabea galdu genuen getariarrok.

Etxola hura XIX. mendearen bukaera aldera egina zela uste da. Paraje horretan, XV. mendean eraikitako Ugarteko San Pedro ermita egon zen 1813. urtera arte, harik eta Napoleonen kontrako Espainiako Independentzia Gerra deituan frantsesek leherrarazi zuten arte. Zaintza-lanak egiteko aukerako parajea baitzen, ez da harritzekoa gero bertan etxola hura egin izana.

Fraileburu izenaren jatorriak ez dirudi misterio handirik duenik. *Fraile + buru* osagaiak dauzka berekin: *frailearen burua*, alegia.

Euskal Herriko beste zenbait tokitan ere badira izen bereko parajeak, eta denetan, 'fraile baten buruaren edo aurpegiaren silueta'ren antza duen mendi edo harkaitz handi bat da izenaren zergatia. Halaxe gertatzen da, esate baterako, Orduñan, Txarlazo mendirako (853 m) bidean dagoen Pico del Fraile edo Frailebururekin. Berdin, Mañaritik Anbotorako bidean dagoen Fraileburu harkaitz (814 m) handiarekin ere. Eta berdin Santoña aldean dagoen Monte Bucieroren alde batean dagoen Peña del Frailerekin ere: denek fraile-buruaren silueta dakarkigute gogora. Getariako Fraileburuk ere jatorri bera izango du ziurrenez.

Fraileburu ala **Praileburu**? Bietara deitu izan zaio eta deitzen zaio, baina, bat aukeratu behar eta Fraileburu erabiltzen da ofizialki. Hala ere, Praileburu esateak badu arrazoi sendo bat. Antzinako euskarak ez zuen <f> letrarik, eta erdarari hartutako hitzetan, haren ordez, automatikoki, <p>-ren aldeko hautua egiten zuten euskaldunek (batez ere gipuzkeraz): *peria*, *pama*, *inpernu*, *pesta*, *praile*, *pormal*, *Pernando*, *Permin*... ; normala, beraz, fraile > praile, Fraileburu > Praileburu ere esatea. Gaur egungo euskaran eta euskara batuan hitz horiek f-rekin idazten dira, eta horregatik Fraileburu ere.

Fraileburu ingurua. /Arg.: Antxon Aguirre Sorondoren *Getaria* liburutik.

ZIGOR SAIZAR

"Hi, zeinen semea haiz?"

Iñaki, Getaian bazagok label propioa duen galdera existentzial bat eta ziur hiri ere behin baino gehiagotan egin izandakoa: "hi, zeinen semea haiz?"

Lehenengo aldiz Getaiko galdera tribal hau entzun nianean 7-8 urte izango nizkian. Eneko, Aitor, Gaizka, Mariano... lagunekin jolasean nenbilean, San Anton mendi magalean "txabola" egiten. Handik pasieran zebilen bastoidun aitonak banan-banan galdetu ziguan: "hi, zeinen semea haiz?". "Ni Izaskungo makinistan semea", "Elkanoko Pedron semea", "San Prudentzioko patroian semea", "Mariano Konden semea"... Aitonak buruarekin gora eta behera eginez, ezagutzen zituela baieztatzen ziean. Ni falta erantzuteko, eta kriston buruhaustea: ez nauk arrantzalean semea, ezta jatetxe ezagunen batekoa...

Handik urte gutxira, *ultramarino*seko denda sartu gintuan pasta lehor batzuk erostera Ander, Igor, Ibai, Anjel... eta ni. Dendariaren jakin nahia asetzeko, ttak, galdera: "zuek zeinen semeak zarete?" "Ni Ondarrun semea", "ni Zulaikako semea", "ni Iribarko Patxin biloba", "ni Piedadeko semea"... Joder, aita, zergatik ez zara Patxikuko patroia?!

Gero, urteen poderioz eta arrazonamenduaren jabe egin ahala —arrazonamendua tamainan, baina tira—, konturatu ninduan gure herrian "norbait" izateko SS-3 etiketa nonbaiten tatuatuta eraman beharra zegoela. Eta tenplarioen antzera, ordena sekretu bat bailiran bezala eragiten zuela leinu horretakoa izateak: herriko festak zein egunetan ospatu, Elkanon lehorreratzean Nao Victoriako 17 marinelak zeintzuk izango ziren...

Dagoeneko nik ere ilea urdinduta, ikastolara praktika eskaera egitera neska bat hurbildu huen eta hizketan ari ginela Getariakoa zela esan zidaan. Oso gaztea huen eta ez nioan tankerarik hartzen zein familiatakoa izan zitekeen. Behin gure adinetik 10-15 urte gazteagoko herritarrak nortzuk diren ez ezagutzea normala dek. "Getaiarra, eh, ba ni ere halaxe naiz". Orduantxe, getaiarren senak aginduko balit bezala, galdera burura: "Eta zu, zeinen alaba zea?".

Agian ur handitan sartu nauk eta itsasoko pedigririk izan gabe, itotzeko arriskuan nagok. Baina, Iñaki, oraindik, jarraitzen al ditek galdera hau egiten? Eta umeek erantzuten dutenean presio itsastarrik sentitzen al ditek?

IÑAKI REQUEJO

Badoa, badoa bidean galdurik

Herri txikietan bazagok herri txikia txiki egiten diken ezaugarri bat eta bete-betean asmatu duk. Donostian bizi denak ez dik jakingo bere inguruan zein bizi den ere, baina beno, herri txikiek zentzu horretan badizkitek alderdi negatibo zein positiboak.

Egutegia aldatu edo kulturari berniz berri bat eman arren, herritarrok berezkoa diagun jokamoldea ez duk aldatzen, batasuna. Batasuna zentzu informatibo batean, hots, *bitxo* arraroa bihurtzen duk herritar bat honen eta haren semeaz pertsona bat deskribatu eta ez duenean ezagutzen. Nik ere arazoak izan ditiat, ez ordea ni ze familiatakoa naizen azaltzeko, besteen familiak ezagutzeko baizik.

Benetako gaia ez duk haren amona edo lehengusuaren berri ez jakitea, herritarron ehuneko handi batek ez

duela familia loturaz aparteko informaziorik baizik. Aurreko hilabetean kontatu bezala, txutxu-mutxuak izan ohi dituk ezagutza igorle, azken hauek besteen bizitzan oinarrituz. Noski, besteen bizitza ezagutu ahal izateko familien berri izan beharra zagok. Hala, amaigabeko zirkulu batean sartzen gaituk.

Guztiz logikoa duk; finean, herri txikiek ez ditek erakunderik behar bere herria zeinez osatua dagoen jakiteko, guztiek guztien berri baititek. Askotan norberaren bizitza pribatua biluzik geratzen duk, baino zer arraio, zer zagok hobeagorik, segurtasun eta zoriontasun aldetik, hire alboan zeintzuk bizi diren jakitea baino? Oraindik gogoratzen diat gu ere txabolak egiten ibiltzen gintuala eta moilako egur zatiak lapurtuta, gure zuhaitz genealogiko osoaren berri eman behar genuenean, gure gurasoak zein demontre ziren jakiteko. Ezezaguna izateak bazizkian bere abantailak.

Nire ileak aspaldi haziak dituk, ez oraindik 3 zenbakira iritsita, baino azken urte gutxi hauetan aski nabaria duk haren aitonaren eta bestearen izeba deskripzio ahalmen edo nik zer dakit, bertuteak bidean galdu direla; egungo gazte zein helduek begirada sarean jarrita ditek, eta ez arrantza sarean, *el internet de las cosas* delakoan.

Biharko aiton-amonen galderak familiaren ingurukoak ez dituk izango; ez galderak edo erantzunak beharrezkoak ez direlako —guztiok tramankulu zikin horiei itsatsirik baikaude— hitz egitearen artea eta aberastasuna baztertu diagulako baizik. Baita, Facebook edo Twitter bezalako aplikazioetan subjektu batek goizean kafeari zenbat azukre bota dion ere kontatzen diagulako ere. Dena sarean kontatzen dik *homo tecnologicus* honek.

Niri ondorengo galdera etortzen zaidak burura: damurik ez dago gure existentziaren inguruan?

Sarera konektaturik eta tramankulu batez idazten ari naizen bitartean...

ZAINTZA

FULDAIN FARMAZIA

Apirilaren 18tik 24ra

EGUNAK

Udal aurrekontuak behin behinean onartu dituzte

Hilaren 14ko ez ohiko bilkuran onartu ziren, behin behinean, 2017ko udal aurrekontuak. EH Bilduko zinegotzien aldeko eta EAJkoen aurkako bozkekin egin zuten aurrera.

Guztira, 3.734.965 euroko aurrekontua da; ia 400.000 euro (%10,6) inbertsioetarako, Udal Gobernuak azaldu duenez. Hauek dira aurreikusitako inbertsio nagusiak, atalka:

- Ongizatea: desfibrilagailua, haurrak aldatzeko lekua eta igogailu hidraulikoa jartzea. Bestetik, 20.000 bideratuko dira Gizarte Larrialdietako Laguntza bermatzera.
- Parte-hartzea: 12.000 euro Elkano 500 proiektua diseinatzeko prozesua, parte-hartzea arautzeko udal ordenantza eta terrazetako mahai zein aulkientzako araudia lantzeko.
- Beilatokia: Eskualtxetan ez bada ere, egiteko asmoa du Udal Gobernuak; kanposantu ondoan. Udalari 20.000 euro kostako zaio, Eusko Jaurlaritzak 80.000 euroko diru-laguntza emango baitu.
- Irisgarritasuna: 15.000 euro erabiliko dira aurrez egindako plana garatzeko.
- Auzo eta herri bideak: Meagaseko auzo elkartea berrituko dute —14.000 euro—, baita herri bideak konpondu ere —82.000 euro—.
- Memoria historikoa: 9.000 euro bideratuko dira lehen frankismo garaia ikertzeko Aranzadirekin iaz sinatutako akordiora; beste 1.000 Matxitxakoko borrokaren 80. urteurreneko oroimen ekintzara.
- Hondakinak: 20.000 euro Menditxon birziklapen gunea egin, lurpeko zaborguneak estali, deposito zaharra txukundu eta txakur gorotzak jasotzeko kontzientziazio kanpainarako.
- Tokiko garapena eta turismo: Elkano 500 proiektuaren fundaziorako 25.000 euro eta 13.000 euro horri lotutako ekintzetarako.
- Hirugarren adina: 25.000 euro Arrantzale Zaharren Elkartearen egoitzako solairua berritzeko.
- Kirola: kiroldegiko spinning gela handitu —3.630 euro— eta kirol ekipamendua hobetuko dute —11.000 euro—.
- Liburutegia: ikasketa gela martxan jartzeko 10.000 euro; liburuzainari lanaldia bi orduz gehituko zaio.

EAJren ustez, "inbertsioetan eskasa eta plangintzarik gabea izateaz gainera, Udalaren zerbitzu juridikoen txostenak dio zenbait inbertsio gauzatu ezinak direla". Gaineratu du "edukia legearekin guztiz bat etorri ez arren, Udal Gobernuak duen gehiengoarekin aurrera" egin dutela.

Literatura Lehiaketako lanak, ostegunera arte

Iazko Literatura Lehiaketako sarituak.

Datorren osteguna izango da XVI. Literatura Lehiaketako lanak aurkezteko azken eguna; 13:00ak baino lehen utzi beharko dira udaleko bulegoetan edo liburutegian.

Ohi bezala, maila ezberdinak egongo dira: hasi LH1etik eta 16 urtetik aurrerakoak arte. Getariarrentzako lehiaketa da eta ipuin, olerki zein bertsoak aurkez daitezke, gai librean.

Sari banaketa apirilaren 28an egingo da, 18:30ean. Mailaren araberako sariak egongo dira.

Aldizkari guztiak helbide honetan:
issuu.com/artzape



25. ZENBAKIA
2004KO URTARRILA

ITURZAETA HERRI ESKOLA: sarea

UMEAK GUSTURA SAREAREKIN

Herriko eskolako haurrak gustura ziren, urte askotako eskariaren ondoren saskibaloiko pistaren inguruan sarea jarri zutelako. Ordura arte baloia erortzen zitzaien aldiro ia plazaraino joan behar izaten zutela kontatzen zuten. Horretan igarotzen zuten atsedenaldiko denbora gehiena; batzuetan saskibaloian jolastu gabe ere geratzen ziren. Handik aurrera eskolako aparkaleku ondoko lursailean futbol zelaia jartzeko eskatu zuten.

6. mailako ikasleak

KIROLAK: I. Zaldi Lasterketa

LEHEN LASTERKETA MALKORBEN

San Anton festetako azken egunean I. Zaldi Lasterketa antolatu zuen Zaldi Zale Taldeak. Eguraldi eskasa egin bazuen ere, jendea gerturatu zen Malkorbe hondartzara. Guztira, hamabi zaldi eta zaldunek hartu zuten parte lasterketan; tartean Xabin Lazkano, Juan Luis Urresti eta Xabier Lazkano getariarrek. *Etxetxo* zumaiarrak irabazi zuen lehen lasterketa hura. Kirolariak ez ezik, herritarrak ere hurbildu ziren lehia ikustera eta antolatzaileak pozik zeuden.

Jon Illarramendi

BERRIKETAN: Igor Ilarramendi

ACONCAGUAKO ESPERIENTZIA

Betidanik inguruko mendietan ibilia, lagun azkoitiar batekin abiatu zen Igor Illarramendi Aconcaguara. Bidean beste lau azpeitiarrekin batu eta aklimatatzeko 4.000-5.000 metrotako mendietan ibili ondoren, 6.959 metroko gailurrera abiatu ziren. "Gailuarra gogorra izan zen, azken 400 metroak batik bat, arnasik gabe, itomen sentsazioarekin eta bidea nahiko txarra dena harri sueltoa baitzegoen", zioen Illarramendik.

Agurtzane Uzin

Aurten inoizko talde gehienek eramango dute lekukoa herrian, 20 inguruk.

Testua
JON ANDER DE LA HOZ

20. Korrika

ARNASA BEROTZEN, EUSKARARI ARNASA EMATEKO

Badira 37 urte Korrikaren lekukoa eskuetan euskararen aldeko ekitaldi jendetsuena abiarazi zutela zenbait lagunek. Euskaltzale haiek omenduko ditu aurten 20. aldia beteko duen ekitaldiak, orduko aldarria inoiz baino biziago dela. "BatZuk" lelopean, inoizko talde gehienek eramango dute lekukoa Getarian datorren apirilaren 5ean.

"Ez da ordurik onena, eta eguraldiak baldintzatu dezake parte-hartzea, baina ziur gaude jendea etorriko dela". Nerea Esnaolaren hitzak dira, eta badaki zerbait gaiaz: Getariako Korrika antolatzen duen taldean bosgarren aldia du aurtengoa. Hamar urte euskararen aldeko ekitaldi jendetsuenaren ibilia herrian antolatzen. Nerea Kamiok ere zenbait urte daramatza antolaketa lanetan, eta antzeko iritzia du: "Mugimendua egongo da, talde bakoitzetik bizpahiru lagun etorriko direlako ziur". Ez alferrik, aurten inoizko talde gehienek eramango baitute lekukoa Getarian, 20 batek guztira.

Martxoaren 30ean Otxandion hasi arren, Korrika ez da Getariatik igaroko apirilaren 5eko goizaldera arte. Zarautzetik iritsiko da 2:00ak aldera, eta bertan izango dira kilometro zatia hartu duten 20 taldeetako lagunak. Bakoitzak bere ahalaren arabera hartu du eramango duen zatia: "Denetarik dago, batzuk kilometro herena eramango dute, besteek erdia, eta gutxi batzuk osoa", azaldu dute batzordekideek. Eragile ezberdinak daude parte-hartzaileen artean; gizarte mugimenduak, kultur arlokoak, kirol taldeak, enpresak eta baita alderdi politikoak ere: "Batzuei parte-hartzea eskatu egin zaie, eta besteek, Urritza kasu, euren kabuz eskatu dute kilometro zatia", zehaztu du Aitor Urresti batzordekideak.

Koadrila hau aspaldi hasi zen apirilaren 5a prestatzen. Iñigo Iruretagoienaren arabera, urtarrila amaieran egin zituzten lehen bilerak, egin beharreko lanak zehazteko. Miren Garate koordinatzailearen esanetan astean behin elkartu dira gehienetan, eta lanak banatu dituzten arren, talde moduan jokatu dute uneoro. Esnaolak azaldu du nola osatu duten batzordea: "Azken alditik Ion Etxeberria, Izaro Uzin, Nerea Kamio eta ni gelditzen gara, eta gero izen batzuk proposatu genizkien AEK-koei, bolondres gisa aurkeztu zirelako". Horien artean Haizea Lertxundi, Xabier Isasti eta Mikel Etxeberria. Iñigo Iruretagoiena eta Julen Ibarbiak deialdi irekiari erantzunez eman dute izena; eta batzordekide dira, halaber, ARTZAPE euskara elkarteko kideak ere.

Korrika Kulturala

Hain justu, euskara elkartearekin elkarlanean antolatu zuten Korrika kulturaleko lehendabiziko ekitaldia: Pupu eta Loreren haurrentzako ikuskizuna. Otsailaren 18an egin zen, Balenciaga Museoan. Ordutik, beste zenbait ekitaldi antolatu ditu batzordeak, mus txapelketa —Iosu Rezola eta Gorka Lazkanok irabazi zutenb— edota bertso afaria, esaterako. Unai Iturriaga eta Beñat Gaztelumendi aritu ziren kantuan, martxoaren 25ean.

Korrika igaroko denean ere izango da ekitaldirik. Apirilaren 4ko arratsaldean ekingo diote giroa berotzeari ordu batzuk geroago pasako den Korrikarako. Hala, Iturzaeta Herri Eskolatik abiatuta kaleetan barrena lasterka arituko dira haurrak Korrika Txikian, frontoian amaituz. Han testiguaren barnean dagoen testua irakurriko dute, eta jarraian txokolatea dastatuko dute plazan. Zanbuka guraso elkartea arduratuko da horretaz.

Apirilaren 9an Iruñean egingo den Korrikaren amaiera ekitaldira joateko autobusa egongo da eskualdetik.

Izena Harralde eta Sokoa tabernetan edo Harritarte dendan eman daiteke.

Korrika Kulturaleko ekitaldietako bat: Pupu eta Loreren emanaldia.

Duela bi urteko Korrika Txikia; aurten apirilaren 4an izango da.

Ondoren, Urritza aisialdi elkartekoekin jokoak egingo dituzte, eta nahikoa jolastu ostean buruhandien txanda izango da. Halaber, goizaldera arte etxeratzeko asmorik ez dutenentzat ere izango da zereginik. Korrika iritsi aurretiko orduetan, besteak beste, parrila jarriko dute batzordekoek, lasterkariek indarrak har ditzaten. Ohi bezala musikarekin girotuta jan eta edan ostean, kantuan ariko dira, eta korrika egiteko prestatzeko ordua iritsi ahala beroketak egingo dituzte herriko kirolarien gidaritzapean. Hala, "goizaldera arteko orduetan jendea mantendu eta ez aspertzeko aukera" eskaini nahi diete bertaratzen direnei, batzordekideen arabera.

Aitzindariak omenduko dituzte

Korrikaren 20. aldiak duela 37 urte antolaketa lanetan aritu ziren aitzindariak omenduko ditu, eta euskararen atea hiztun berriei zabaltzea du xede. Hala dio Korrikaren web orrialdeak dakarren mezu zatiak: "Korrikak zurekin hitz egin nahi du. Euskara ezagut eta erabil dezazun". Horretarako, *BatZuk* leloa atera dute, eta Garate koordinatzaileak azaldu duenez, "leloa oraindik euskal hiztun ez diren horiei zuzenduta dago. Eurak ere izan daitezke *BatZuk* hori osatuko dutenak".

Orain udaberrian egiten den arren, duela 37 urte Korrika antolatzeko pausoa egin zutenek oso bestelako egutegia aukeratu zuten. Azaroaren amaiera eta abenduaren lehen astean egin zuten Oñatitik Bilborainoko bidea, eta aldakor mantendu zen egutegia lehen bost ekitaldiak igaro artean. Hala, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, azaroa eta abenduan aritu ziren Korrika, seigarren ekitalditik aurrera martxoa eta apirila artean egonkortu zen arte, salbuespenak salbuespen.

Euskal Herrian barrena 2.300 kilometro inguru egingo dituzten arren, ez dira Korrikak egingo dituen bakarrak. Izan ere, 1999an hasitako dinamikari jarraituz, Euskal Herritik kanpo bizi diren euskaldunek ere lasterka egin ohi dute nonahi aurkitzen direla ere. Hala, praktikan, aurtengo Korrika ez da martxoaren 30ean Otxandion hasi, Nepalen baizik. Hain justu, Lalitpur hirian. Hilaren 18an egin zuten bertan, eta ordutik ez dira gutxi izan nazioartean euskararen alde korrika aritu direnak: Europan hogeitaka hiritan, Amerikan zortzitan, eta Asian eta Ozeanian banatan. Bistan denez, mundu guztian berotuko dute arnasa, euskarak arnasa har dezan.

IRIZABAL,S.A.
ARRAINAK

IPAR KAIA Z/G 20808 GETARIA (GIPUZKOA) TEL.: 943 89 60 10 FAX: 943 14 00 30 C.I.F.: A-20090981

azkuelek

Araba kalea, 41 ZARAUTZ
[Maxi Eroski ondoan]
943-13 04 33 - 619 523 539
azkuelek.com

ETXEKO BERRIKUNTZAK · TELEKOMUNIKAZIOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK · ARGIZTAPENA · DEKORAZIOA · KONPONKETAK · ANTENAK

Getaria
AUTOESKOLA

Herrerieta
23 behea

Tel: 943 140 301

ORDUTEGI MALGUAK - EUSKARAZ EGITEKO AUKERA

POLITENA

GURE BEREZITASUNAK:

- Astegunetan:
  Eguneko menua
- Jaiegun eta asteburuetan:
  Luxuzko pintxoak, bokatak eta razioak.
- Eramateko eskariak.
- Wi-Fi zerbitzua.

GETARIA

Kale Nagusia, 9
Tel. 943 140 113

aranola
PVC eta Aluminiozko lanak

Tel.: 649 95 15 03 / 649 97 30 41
Fax.: 943 14 02 86

Taberna
Mayflower
Erretegia

katrapona, 4
Tel.: 943 14 06 58 GETARIA

TXOKO
Getaria

txokogetaria.com

Tlf: 943 140 539

HARRI, ORRI, AR IKUSKIZUNA

"DANTZA SAIOA IKUSTEN DUENAK ESAN DEZAKE HARRI BAT JAN DUELA"

Izenari erreparatze hutsa nahikoa da Fleischmann Cooking Group taldearen oinarrian sukaldaritza dagoela jabetzeko. Alabaina, platera mahaira aurkeztera mugatzen den sukalde eredua gainditu eta beste zenbait erpin ukitu dituzte taldeko kideek, Enrique Fleischmann eta Beñat Gerekak azaldu digutenez. Azkena, Dantzaz konpainiarekin elkarlanean sortutako "Harri, Orri, Ar" ikuskizuna. Gastronomia dantzarekin uztartzen dute, eta atrezzo jangarria zein komunikazio atala landu ditu Getariako taldeak.

TESTUA
JON ANDER DE LA HOZ

Dantzaz konpainiarekin elkarlanean "Harri, Orri, Ar" ikusizuna sortu duzue. Nondik dator ideia?

Gereka: Dantzaz konpainiarekin aritu nintzen lanean urtebete inguru, komunikazio arloko eginkizunetan; bideoak, *flyer*-ak eta bestelako gauzak egiten. Konpainia honek beti egin izan ditu proiektuak diziplina ezberdinekin; oraingoan gastronomia eta dantza uztartu nahi zituzten. Bazekiten guk sukaldari talde bat bagenuela, eta gastronomia dantzarekin fusionatzeko proposamena helarazi zidaten. Nik taldeari azaldu nion; ideia gustatu eta baiezkoarekin, aurrera.

Zein da Fleischmann Cooking Groupen parte-hartzea proiektuan?

Gereka: Batetik, ikuskizunaren koproduktoreak gara beste bi enpresekin batera; bestetik, ikuskizunaren arlo gastronomikoa landu dugu.

Zergatik landu duzue "Harri, Orri, Ar" jokoa?

Gereka: Bazkari batean bururatu zitzaigun ideia. Dantzazen proposamena heldutakoan, ikuskizuna nola sortu erabakitzeko bildu ginen; aipatu genien harri eta paper jangarriak egiteko aukera zegoela. *Brainstorming* edo ideia lanketa horretatik atera zen guztia: harri eta orriei buruz ari ginela, kaleko jokoarekin oroitu eta ikusi genuen posible zela dantzarekin uztartzea. Horrela sortu genuen.

Fleischmann: Jokoa bera irudikatzen du. Azkenean, harriak eta paperak joko horren zati garrantzitsuak dira, eta oso modu naturalean sartu genituen.

Ikuskizunaren kartelaren irudia.

"Gastronomia dantzarekin fusionatzeko proposamena helarazi zidaten"



Harri, Orri, Ar jokoan oinarritzen da ikuskizuna. /Jon Ander de la Hoz

Danimarkako Holsterbro hirian estreinatu zenuten obra. Nolatan?

Gereka: Tira, kontaktua Dantzaz konpainiarena da. Sarritan joaten dira Europako leku ezberdinetara; tartean Holsterbroko festibalerako gonbidapena zutenez, *Harri, Orri, Ar* bertan aurkeztea proposatu zuten. Danimarkan balekoa iruditu eta hara joan ginen irailean.

Nolako onarpena izan zuen bertan?

Gereka: Hasiera batean, nahiko hotza. Ez dakit publikoak oso ondo ulertu zuen lanaren funtsa. Gainera, aurrena dantza erakutsi genuen, eta gero janariarena azaldu. Bertan esan ziguten alderantziz eginez gero, agian hobeto ulertuko zela.

Fleischmann: Ez nuke esango hotza izan zenik. Zerbait berria zen eurentzat eta horrelakoetan guztiok jokatzen dugu hala. Nire ustez, Euskal Herrian azken 30 urteotan sukaldaritzak izan duen eboluzioa ez da alderagarria Danimarkan eman denarekin. Hemen kosta egiten bada harri bat jatearen kontzeptua ulertzea, pentsa eboluzio hori eman ez den lekuan. Hala, ikusten zutenean sukaldari bat igotzen zela oholtzara harri bat jateko esanez, ba askok ez zuten nahi. Ezagutzen ez zuten gauza bat erakustean, atzera egin zuen bat baino gehiagok, baina ez dut uste hoztasunagatik zenik.

Agian, atrezzo jangarriaren kontzeptua iristeko zaila da?

Fleischmann: Bai, oihalen halako antza du, ezen jendeak ez duela ulertzen dantzariak zer ari diren jaten. Hori azaldu egin dugu, idatziz, eta ikus-entzunezko bat ere aurkeztu

dugu, arropa jangarrien prozesua sukaldetik oholtzaraino erakusten duena. Berdina egin dugu harriekin ere. Lan artistiko hori, sukaldekoa, bideoz erakusten dugu, eta obraren amaieran probatzeko ematen diegu.

Nola landu dituzue sukalde kontzeptuak obra honetan?

Fleischmann: Aurrez existitzen ziren. Beste errezetatan erabilitakoak dira, funtsean. Esaterako, txokolatezko harriak egiten genituen jatetxerako, eta ikuskizunean txertatzea izan da egin dugun lana. Hala, sortzaile lanak egitea erraza izan da, aurrez genuena obrarekin lotzea izan delako. Ikerketa lanik ez du izan.

Zein produktu erabili dituzu atrezzo jangarria egiteko?

Fleischmann: Batetik, pikillo piperrak, kolore gorri bizia oso ikusgarria delako. Ez hori bakarrik; hemen bertako produktua da, inguru honetan asko erabiltzen dena. Oihal jangarriak egin nitzazke tipula azalekin, baina dakizuenez, mundu guztian dago tipula, ez du pikillo piperraren berezitasun hori. Gainera, teknikoki ere oso baliagarria da, oihal oso malgua lor daitekeelako. Gero, sagarrarekin ere egin genuen oihala, berde kolorekoa, baserriekin eta sagardoarekin lotura eginez. Egin genezakeen paper horia mangoa erabilita, baina hemengo gastronomiarekin ez du loturarik. Hala, produktuaren idiosinkrasia kulturarekin batu nahi izan dugu. Gero, harriak egiteko txibien tinta erabili genuen. Zenbat gauza beltz jaten dira munduan? Oso gutxi, Mexikon onddo bat, eta porruen hautsa nahi bada, hemengo txibien tintaz gain.

Besteak beste, ikuskizunean limurketaren jokoa irudikatu nahi da. Nola lotzen da hori gastronomiarekin?

Fleischmann: Tira, sukaldatzea oso gauza erromantikoa da.

Gereka: Baita jatea ere!

Fleischmann: Bai, baina ez hainbeste. Zuk besteentzat sukaldatzen duzunean, zerbait elkarbanatzen ari zara, eta nolabait, zure pentsakera txertatzen duzu egiten duzun horretan. Nik zuri zerbait ematen dizut hobeto egon zaitezen. Hala, pertsona batek bere elikadura zaintzen duenean, ematen dizu bere esentziaren zati bat. Dantzariekin gertatzen da hori: mugitzen diren eran, limurtzea lortzen dute, euren onena ematen ari direlako. Sukaldatzen duenak bere esentzia erakusten du eta dantzan ari denak ere bai, publikoa gozaraziz. Hala, bakoitzak beretik ematean, ikuskizunak limurtzea lortzen du.

Plazeren fusio bat da?

Fleischmann: Bai, izan liteke. Ikusleari gehienbat dantza ikusteak ematen dio, eta gero, janariaren kontzeptu apurtzaileak gehitzen zaizkio:

Fleischmann ikuskizuneko atrezzo jangarriarekin. /Beñat Gereka

Getariako taldeak egindako promoziorako lanaren irudi bat. /Blanca Razquin-Dantzaz

dantza saioa ikustera doanak, esan dezake harri bat jan duela. Zerbait apurtzailea da.

Danimarkaz gain, beste zein lekutan aurkeztu duzue?

Gereka: Euskal Herrian bira bat lotu dugu berriki. Elorrion eskaini genuen duela gutxi, 250 pertsonaren aurrean. Orain beste lekuetara joango gara: Eibar, Arrasate, Donostia, Donapaleu...

Proiektuaren bideo promozionala Iturzaeta Herri Eskolako haurrekin egin duzue.

Gereka: Hala da. *Harri, Orri, Ar* ideia lantzerakoan, frontoi bat etorri zitzaidan gogora. Hala, Askizuko eliza atarian dagoen frontoi polit hori aprobetxagarria litzatekeela bururatu zitzaidan. Eskolarekin harremanetan jarri, eta sekulako harrera egin zidatenez, haiekin elkarlanean egin genuen. Goiz bat eman genuen grabatzen, eta esperientzia polita izan zen. Haurrak hasiera batean apur bat lotsatuta zeuden, baina pare bat oihu eginda giroan sartu ziren.

"Berrikuntzan sakontzeko asmoa da, betiko jatetxe sistematik pixka bat irtetetekoa" Enrique Fleischmann

Honez gain, badago gastronomia eta dantza lotzen duen obrarik dantzan?

Fleischmann: Dantzazek egin du tabernetan obrarik, Donostiako Parte Zaharrean-eta. Mugaritzek ere egin du zerbait, eta Basque Culinary Centerren ere bai. Horiek, baina, janaldia girotzeko izan dira gehiago, elementu fisikoek ez zuten obratan parte-hartze zuzenik izaten. Danimarkako Black Box Companyko zuzendariak ere esan zuen zerbait berritzailea zela.

Zer gehitu diezaiokete horrelako sorkuntzek gastronomiari?

Fleischmann: Berrikuntzan sakontzeko asmoa da, betiko jatetxe sistematik pixka bat irtetekoa. Erakutsi nahi dugu sukaldea ez dela kroketak edo arrainak prestatzea bakarrik, badagoela beste zerbait ere. Ez da asko lantzen, oso enfokatuak gaudelako jaten ematera. Hori apur bat aldatu nahi dugu, nahiz eta esfortzu handi samarra izan eguneroko lanarekin bateratzea. Honekin gure motibazioa lantzen dugu, gozatzeko egiten baitugu. Asko betetzen du horrelako gauzak egiteak.

2017ko APIRILA

2 Igandea
Zine emanaldia
Ordua: *17:00*
Lekua: *Gure Txeruren aretoa*
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*

3 Astelehena
Errigoraren olioa jasotzea
Ordua: *18:00-20:30*
Lekua: *Berdura plaza*
Antolatzailea: *Getariako Eskubide Sozialen Karta*

Herri bilera
Ordua: *19:00*
Lekua: *Alhondiga*
Antolatzailea: *EH Bildu*

4 Asteartea
***Gozo zahartu III* tailerra**
Ordua: *15:00-17:00*

Korrika Txikia
Ordua: *arratsaldean*
Lekua: *Herri Eskolan hasita*
Antolatzailea: *Zanbuka Guraso Elkartea*
Herriko kaleetan ibili ondoren, frontoian amaituko dute. Testigu barruko idatzia irakurriko dute han eta gero txokolatea jango dute. Urritzak antolatutako jolasen ondoren, buruhandiak izango dira.

Korrikarako beroketa
Ordua: *iluntzean*
Antolatzailea: *Korrika Batzordea*
Parrilla jarriko dute, musikarekin girotuta. Kantuan ariko dira gero eta Korrika heldu aurretik beroketak egingo dituzte herriko kirolarien gidaritzapean.

5 Asteazkena
Korrika
Ordua: *02:00ak aldera*
Lekua: *herrian zehar*

6 Osteguna
XVI. Literatura Lehiaketako lanak aurkezteko epe amaiera
Ordua: *13:00ak baino lehen*
Lekua: *udal bulego edo liburutegia*
Antolatzailea: *Getariako Udala*

***Gazteok Euskal Estatuari bai!* hitzaldia**
Ordua: *19:00*
Lekua: *Gaztetxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada eta Eskubide Sozialen Karta, "Euskal Estatua edukiz jantziz" egitasmoaren baitan. Mikel Urdangarinek eskainiko du.*

9 Igandea
Zine emanaldia
Ordua: *17:00*
Lekua: *Gure Txeruren aretoa*
Antolatzailea: *Guraso Elkartea*
Azken emanaldia izango da.

11 Asteartea
***Gozo zahartu III* tailerra**
Ordua: *15:00-17:00*

20 Osteguna
TTIP/CETAri buruzko mahai-ingurua
Ordua: *19:00*
Lekua: *Ulpiano etxea*
Antolatzailea: *Getaiko Gazte Asanblada, Eskubide Sozialen Karta eta Getariako Udala.*
Luke Uribe-Etxeberria EAJko legebiltzarkide eta Josu Juaristi EH Bilduko europarlamentariarekin.

23 Igandea
Mendi irteera Udalaitzera

25 Asteartea
Gernikara irteera
Antolatzailea: *Arrantzale Zaharren Elkartea*

***Gozo zahartu III* tailerra**
Ordua: *15:00-17:00*

27 Osteguna
Katukale irakurle taldearen saioa
Ordua: *18:30*
Lekua: *Liburutegia*
Alaine Agirreren "X hil da" landuko dute idazlea bertan dela.

29 Larunbata
Getariako III. Triatloia
Ordua: *16:00*
Lekua: *Hondartza*
Antolatzailea: *Getaitri*
Apirilaren 24ean amaituko da izen-emate epea.

Jaiak

28-30 Ol-Ig
San Prudentzio auzoko jaiak

28 Ostirala
- *10:00etan, Getariako Gazte Alaiak txistulariekin festen hasiera. Meza aurretik, San Prudentzio Erretreta txistularien eskutik.*
- *11:00etan, Meza Nagusia*
- *22:00etan, IV. Mus Txapelketa*

29 Larunbata
- *20:30ean, bertso afaria*
- *Jarraian, erromeria*

30 Igandea
- *10:00etan, Gazte Alaiak txistulariak*
- *11:00etan, Meza Nagusia*
- *12:00etan, ume jolasak*
- *13:00etan, Txeruko dantzarien saioa*
- *Ondoren, asto karrera*

Cristobal Balenciaga Museoa

10-23 Al.-Ig.
Ordutegi zabalagoa
Egunero ireki eta ordutegia zabalduko du. Horrela, irekita egongo da 10:00etatik 19:00etara eta bisita gidatuak eskainiko dira erakusketetara 12:30ean eta 17:00etan.

15-16 Lr-Ig
Bisitaldiak Dantzaz
Ordua: *12:30*
Museoak eta Dantzaz konpainiak elkarrekin egindako ikerketa prozesu bati esker, konpainiako dantzari gazteek Vitali Safronkine dantzari eta koreografoak museoko bildumen inguruan sortutako koreografia interpretatuko dute. info@cristobalbalenciagamuseoa.com

18-21 As-Ol
Pazko Asteko kanpamentua
Ordua: *09:00-13:30*
6-12 urte bitarteko umeentzako kanpamentu jostagarri eta hezigarria. Museoan ikusgai dauden obrak ezagutu eta barruan zein kanpoan egingo diren jardueretan parte hartuko dute. Informazio gehiago: didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com

29-30 Lr-Ig
Euskal burukoa interpretatu eta sortu ezazu
Ordua: *10:00-14:00 eta 15:00-18:00*
Gill Connonek gidatuta, buruko bana egingo dute parte-hartzaileek. Informazio gehiago: didaktika@cristobalbalenciagamuseoa.com

PUBLIZITATE TARIFAK

Tamainak	Zenbatekoa
4,3 x 4	*12 euro*
9 x 4	*24 euro*
13,6 x 4	*36 euro*
9 x 8	*48 euro*
13,6 x 8	*72 euro*
orri erdia	*96 euro*

Urte osoan jartzen dutenei %10eko deskontua egingo zaie.

BIDALI ZURE DATUAK:

@ artzape@topagunea.com-era

Txeruko postontzira

IZEN-DEITURAK:

HELBIDEA - HERRIA - P.K:

TELEFONOA:

HELBIDE ELEKTRONIKOA:

KONTU ZENBAKIA:

BANKETXEA:

Urtean 25€ - Getariatik kanpora bidaltzea 30€